

Saioa Olmo

<https://saioaolmo.com/>

Wow

Kode eskaneagarri baten bidez zure burua aurkeztea. 3D irudi digital gisa agertzea. Emakume sortzaile gisa adieraztea. Hautemangarri, identifikagarri, ulergarri, onargarri, dezifragarri bihurtzea. Berriz huts egiteko aukera asko dituen saioa dela jakinda ere, saiatzea.

Praktika artistikoa ulertzen dut mundua atzematen saiatzeko erlazorako gailu esperimentalen sorkuntza gisa. Hemen nago, errealitateak, testuinguruak, pertsonak, materialak eta subjektibitateak elkarri lotzeko tresna bat integratzen. Asmatzen dudana mekanismo ludiko bat da, eta haren bidez aurkitzen ditut kanpoko espazioa, espazio interstiziala eta barrukoa; iragana, oraina eta etorkizuna.

Entzumena arretazkoa da. Ikusmena anitza eta aldakorra da. Joanaren hitzez hitzeko komunikaziotik itzuleraren ez-hitzezko oroitzapenera doan ibilbidea marrazten duen beharrezko interjekzioa da "Wow". Artearen magia hartzen duenarengan gerta dadin behar den uhin-luzera da.

Xuxurlatzea etorkizuna feminista izango dela edo ez dela izango.

Artista eta arte-irakaslea naiz UPV/EHUn, eta *AZ Reality Laben* ikuspegi feministarekin lotura duten proiektu artistiko kolektiboak egin ditut, hala nola: *Optikak* (hainbat emakumeren ikuspegiei buruzkoa), *Wiki-historias* (artearen historiak eraikitzea euskal testuinguruan, artisten eta bitartekarien testigantzetatik abiatuta), eta *Susurrando el futuro* (erantzunkidetasunari eta garaikideak ez diren belaunaldien arteko zaintzari buruzkoa. Informazio gehiago: susurrandoelfuturo.wordpress.com).

